


BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure helburua ume zein gazteentzat aisialdirako gune bat sortzea da, dibertigarria, soziala, pedagogikoa, eta interesgarria suertatu daitekeena. Lokal bat prestatuko dugu, uda zein neguan gauza ezberdinak eskaintzen dituenak eta adin guztietarako jolas zein ekintzak egongo direnak. Hortaz gure helburu nagusia lortuko genuke, gailu elektronikoekiko gizarteak duen menpekotasuna murriztea; teknologia alde batera utzi eta elkarrekin ondo pasa dezaten.



Gainera, gurasoen onuran ere zentratuko gara. Izan ere, beraien seme-alabek denbora on bat pasatzen duten bitartean, helduek denbora hori egin behar dituzten gauzak egiteko erabili dezakete. Jarraian, bezeroek gure zerbitzua erabiltzeko izango duten arrazoiak emango ditugu:



Gure balioa kuantitatiboa zein kualitatiboa izango da. Alde batetik, kuantitatiboa dela esango dugu gure enpresak zerbitzu berri bat eskaintzen duenez, prezioak guk nola nahikoak izango direlako, arrazoizkoak. Hala ere, zerbitzu pertsonalizatuak ere eskainiko ditugunez prezioek pixka bat gora egin dezakete.

Bestetik, kualitatiboa izango da, zerbitzu pertsonalizatuak eskainiko ditugulako eta denek ondo pasatzea bermatuko dugulako. Gure zerbitzuak, pantailak alde batera utzi eta sozializatzeko aukera emango du, pandemiak aukera hori errotik kendu ziguna.

Lokalean ariketa fisiko ezberdinak egin ahalko dira, beraz, ondo pasatzeaz gain kirola ere egingo dute kontsumitzaileek. Bestetik, lokala material berrerabiliekin eraikiko dugu eta ingurumenean ahalik eta inpaktu gutxien izaten saiatuko gara zenbait teknika ezberdinekin; plaka solarrak, ura euritik hartuta... .